

Zamudio, bi errealitate ezberdin

Teknologi Parkekoarekin zerikusi gutxi izan du Zamudio herrian egindako lanuzteak

Zamudioko elizako kanpandorrean, erlojuak oraindik jo gabeak ditu 12 kanpaiak. Hala ere, plaza ondoan dagoen tren geltokiko bozgorailuetatik Eusko-Trenen izenean mintzo den ahotsak aurreratua du ordubetez ez dela trenik ibiliko. Zamudioko plazan bertan, udaletxean ikurrina da nagusi. Udaletxeko plazatik, Teknologi Parkeko ikurrina ikusten da. Hurrengo milurtekoari begirako industria da, baserri eta larre berdeen artean.

Zamudioko plazatik elkar-tegira laburra da bidea. Teknologi Parkean, normaltasuna da nagusi. Hurbildu ahala, ez da ezer berezirik sumatzen.

Parkean, Ingelectric Team enpresaren alboan, langile multzo bat ageri da kanpoaldean. Hizketan. Lanuztean parte hartzen ari dira, hamar dira eta bat egunkaria irakurtzen ari da; ez dute pankartarik. Borondatez atera dira eta ordu erdiko geldiu-nea egin dute. Ingeniaritza enpresa da Ingelectrik, parkeko modernoenetakoa. Handik ehun bat metrora, Ibermatica, Ericsson eta Airtel enpresak daude. Kanpoaldean 20 bat langile. Euskaraz mintzo dira, asteburuko kontuak dituzte hizketagai. Larunbateko manifestazioaren leloak bultzatu ditu lanuztea egitera, baina esku artean ez dute pankartarik. Gaur ez du arrakasta handirik greba deialdiak. Guztira, 80 bat enpresa daude bertan, 1.500 langile inguru.



MIKEL MARTINEZ

Zamudioko Teknologi Parkean geldialdia egin zuten langileak.

■ ■ ■ 20 bat langile Ibermatica, Ericsson eta Airtel enpresen kanpoaldean. Asteburuko kontuez dihardute, euskaraz. Manifestazioaren leloak bultzatu ditu lanuztea egitera

Herrian arrakastatsua

Bestelakoa da Zamudioko plazan ikus daitekeen giroa. 3.000 biztanleko herri hone-tako udaletxearen magalean jende ugari dago bildurik. Udalak bat egin du deialdia-rekin eta langile guztiak plaza-atera dira. Pankartak

Bakea eraikitzen, Euskal Herriak du hitza dio, Lizarra-Garazik sinatua da.

Bertara bildu dira eskolako irakasleak; multzo batean daude guztiak, zuzendariare-kin berbetan. Gazte gutxi dago herrian orain: «Gehie-nak institutueta eta uni-bertsitateko deialdietara joan

dira», adierazi digute. Baina Zamudion deialdiak izanda-ko arrakasta gogoratu dute herritarrek. «Aspaldian izan-dako onena da gaurkoa, komertzioen hiru laurdenak zarratuta daude; taberna guztiak eta herri inguruan dauden enpresa batzuk ere kanpoan egon dira», adierazi zuten kontzentrazioan bildu-tako herritarrek. Tabernak itxita daude, eta banketxee-tako langileak ere kalean dira. Bi harategiak itxita dau-de, supermerkatuak berdin.

Patxi Gaztelumendi
ZAMUDIO

Gernikako azoka historian lehenengo aldiz geratu zen

Goizean goiz erabaki zuten Gernikako azokak ordubeteko lanuztearekin bat egingo zuela han zeuden baserriarrek. Gernikako azokako saltokietako jendeak bat egin zuen baserriarren erabakiare-kin, eta, lehenengo aldiz, erabat gelditu zen Gernikako azoka. Azokako sarreran traktoreak jarri zituzten baserriarrek, kontzentrazioa egin zuten, eta Unzu Salterainek, EHNE sindikatuko Bizkai-ko arduradunak, adieraz-penak egin zituen. Duran-galdean ere antzeko ekin-tza egin zuten, EHNE sindikatuak deituta. Durangaldeko nekazarien kooperatibaren aurrera traktoreak eraman zituz-ten.

Arropa denda batzuetan lanuztea ez zen erabatekoa izan


BILBOKO arropa denda handienek lanuztearekin bat egin ez zuten arren, Bizkai osoan denda asko itxi zituzten ordubetez. Lanuztea ez zen erabate-koa izan kasu batzuetan. Barruko argiak erdi itza-liak izan arren, eta kanpo-ko atean itxita jartzen zuen arren, lanuztearen berri ez zuen emakume bat gerturatu zen haietako baten atera. Denda zerga-tik zegoen itxita azaldu zion saltzaileak. Aurreko egun batean ikusi zuen soineko bat probatzera zihoala esan zion emaku-meak, eta hor bukatu zen dendako ordubeteko lanuztea.

Bermeo geldituta.

Bermeo osoak egin zuen bat Lizarra-Garaziko sintzaileek deitutako lanuztearekin. Denda eta tabernarik gehienak itxi zituzten 12:00etatik 13:00era. Udaletxe aurrean jende andana bildu zen. Presoen argazkiak ere present izan ziren.



RAMON BASALDUA



MIKEL MARTINEZ

EuskoTrenen zerbitzuak geldirik.

EuskoTrenek bere tren, funikular eta autobusetan ordubeteko lanuztea iragarri zuen. Ordubetez ez zen trenik ibili Bilbo-Lezama eta Bilbotik Donostiarako zerbitzuetan. Bilbo eta Getxo arteko autobusak ere ez zen izan.